

# ANUARIO DEL SEMINARIO DE FILOLOGÍA VASCA «JULIO DE URQUIJO»

International Journal of Basque Linguistics and Philology

XLV-1

2011



Gipuzkoako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Gipuzkoa



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

© “Julio Urkixo” Euskal Filologia Mintegi-Institutua / Instituto-Seminario de Filología Vasca «Julio de Urquijo»

---

ISSN.: 0582-6152. Depósito legal / Lege gordailua: S.S.-400/1967

# NERBIOI GOIENENKO EUSKARARAKO MATERIAL GEHIAGO: XVII. MENDE AMAIERAKO URDUÑAKO BERBA ZERRENDA BAT

Ander Ros Cubas

## Laburpena

XVII. gizaldiaren amaierako 64 hitzeko hiztegiño ezezagun bat aurkezten dugu. Ber-  
raur XIX. mendearen erdialderako desagertua zen eta orain artean bat ere daturik ez ge-  
nuen azpieuskalki bateko erakuskaria dugu. Testu xumea amaitu gabe geratu zen hiztegi  
txiki baten saiakerako A eta B letrek osatzen dute, Urduña hiriko Kontu Liburu bateko  
orri zurietan izkiriaturua. Aurkikuntzaren ingurumaria azaltzen da eta material gehiago  
eduki zezaketen beste bi orriren existentziaren berri ematen dugu. Ahaleginak ahalegin,  
ez dugu hitz zerrendaren egilea identifikatzerik izan.

Datuok beste iturri batzuen argitan editatu eta aztertu ditugu, mende bat lehenago  
baina neurri batean testuinguru soziolinguistiko alderagarria eta urrun ez duen hiri ba-  
tean, Gasteizen, konposatu zen Nicolás Landuchioren *Dictionarium linguae cantabri-  
cae* delakoa izan zaigularik bereziki lagungarria. Analsiak agerian uzten digu erakus-  
kariak, bere txikian ere, garai eta eskualde hartako lexikoa eta hizkera ezagutzeko datu  
garrantzitsuak eskaintzen dizkigula. Aurretik testatu gabeko zenbait aldaera agertzen  
dira, formaz zein zentzuz, eta berandu dokumenturiko beste batzuen datazioa atzera-  
tzen digu.

## Abstract

Here is presented a small unpublished vocabulary of the late XVIIth century, composed  
of 64 words of a variety of languages already lost by the mid-nineteenth century, of which  
there was minimal amount of data. The text is composed by the letters A and B of an at-  
tempt of a small dictionary that remained unfinished, written in the blank pages of an  
Accountancy Book of the city of Orduña. The context of the findings is analyzed, and evi-  
dence shows the existence and disappearance of another two sheets that could contain  
more material. Despite having done different inquiries, it has not been possible to identify  
the author of the list of words.

The data is edited and studied in regards to other literature, especially the *Dictiona-  
rium linguae cantabricae* by Nicolas Landuchio, which precedes a century, and was com-  
posed in a city, Vitoria, not too far away and with a slightly comparable sociolinguistic  
context. The analysis discovers that, despite the simplicity of the sample, it gives important  
insight for the knowledge of the vocabulary, and language in that period and area. Cer-

*tain variants previously not tested are shown, neither in its form nor in its sense, and it delays the dating of few others belatedly documented.*

## Dokumentua<sup>1</sup>

Aurkezten dugun hitz zerrenda edo hiztegiño saioa Urduñako Udaleko kontu liburu bateko azken orri zurietan idatzitakoa da, liburuari buelta eman eta atzekoz aurrera erabilia. Aipatu liburua 1666-1684 urte bitarteko kontuak<sup>2</sup> biltzen dituen da eta Urduñako Udal Artxiboko L/060 signatura duela, egun Bizkaiko Foru Aldundiko Artxiboan datza gorderik, Bilbaon. Gure testua urte bitarte horietakoa dela pentsa daiteke, baina orobat pentsa daiteke liburu berri batekin hasi arte, alegia, 1685az geroztik, ez zegoela jakiterik liburuan orri zuririk utziko zen edo ez, eta horretara bertan idazten hasteko ez bide zen oso aproposa. Behin liburu berri batekin hasita, alabaina, aurrekoa artxibaturik edo geratuko zen eta, era berean, erabiltzeko eskura ez egon, beharbada. Horiek horrela, ez dago hiztegiño saioa zehatzago datatzerik.

Kontu liburu hau 21 × 32 zm-ko orriek osatzen dute, ondo kontserbaturik dago larruazalezko estalkia duela. Liburuak, atzekoz aurrera hartuta, zuriz dauka lehendabiziko orria, ia ikusten ez diren biderketa eta batuketa txiki bana salbu. Hurrengo bietan, aurreko aldetik idatzita dago bi zutabetan hitz zerrenda. Ondoren, erazutitako orri bi eta beste 10 orri zuri, hortxe hasten baita, edo amaitzen, urtez urteko kontuen erregistroa.

Hitz zerrenda diogu, hasierako A eta B letretako hitz batzuk baino ez baititu hartzen, baina, orobat, hiztegiño saioa zutabe txukun samarretan ordena alfabetikoa zorrotz zaintzen saiatu zelako egilea. Bi letra orrialde banatan. Hurrengo bi orriak falta dira. Horzkada moduko markek norbaitek artaziez ebaki dituela pentsatzera garamatzate. Idatzita egon balira gutxienez beste bi letra, C eta D, izango zituzkeen hiztegiak. Ez dakigu, ordea, noiz eta zergatik erauzi zituen orri horiek. Susmoren bat, alabaina, ez da falta eta, hortara, ebaki eta desagerturiko bi orri horiek berreskuratzeke esperantza xume eta ñimiñoa badago. Testuaren berri eman digun artxibariaren ustez, orain 25 bat urte gertatu bide zen orrion desagertzea, kontu liburuak zuzenean eta inolako kontrolik gabe ikerlarien esku egon zirela.

Kontuak kontu, bi nahiz lau orri izan, hiztegia tamalez amaitu gabe utzi zuten. 64 hitz dira biltzen dituenak, gehi beste hiru, konposatuetan ageri zaizkigun *egin*, *garbitu* eta *aldean* ere zenbatzen baditugu. A letran 31 lema, eskuineko zutabea

<sup>1</sup> Txomin Robina Egiluzek, Urduñaren izen zaharra, baita euskaraz ere, *Orduña* dela errotik frogatzeko urteak eman dituenak, aurkitu zuen testua orain 20 bat urte, *Buen Suceso* izeneko ermita urduñarraren historia ikertzen ari zela, orduan udaleko bibliotekaria izanik. Berrikitan jakin dut, ordea, Urduñako historian aditua eta hainbat liburu eta artikulua idatzia den José Ignacio Salazar Arechalde historialariak, Urduñako Udaleko idazkaria zela, testua ezagutu ez ezik, berau ezagutarazteko lan bat prestatua zuela lehenagotik: «Vocabulario vasco en un libro de cuentas de Orduña del siglo XVII». Euskaltzaindiara eraman eta José Luis Lizundiaren esku utzi zuen aspalditxoan, harrezkero lozorroan egon delarik. Bataren eta bestearen ezaupidea egin nuen, orain dozena erdi bat urte lehenarena eta orain urtebete edo bigarrenarena, José Alfonso Antequera eta Eli Gutiérrez lagun bidez. Bihoazkie hemendik lauroi neure eskerrik beroenak.

<sup>2</sup> 1666-1682 tartea ematen du Salazar Arechaldek.

amaitu gabe utzita. B letran gainerako 33ak, ezker-eskuineko zutabeak goitik behera beteta.

### Testuaren egilea

Hiztegiñoa apailatzen nor hasi zen ere ez dakigu, baina pentsatzekoa da udaleko sindikoa izan zela. Sindikoa zen herrirako horniketen ardura zuena eta horren ondorioz hornitzaileekin tratu zuzena zeukana. Hornitzaile hauetariko asko baserritarrak bide ziren, asko Aiara bailarako euskaldun elebakarrak orduan denboran. Suerta zitekeen baserritar euskaldun horiekin komunikatzeko zailtasunak izatea eta hiztegi baten beharra sentitzea sindikoak. Testuinguru horretan kokatu beharko genuke hiztegiño saio hau. Saiatu, saiatu gara urte horietako letramoldea eta sinadurak alderatzen baina ez digu erkaketa honek fruiturik eman. Izan ere, orri bakoitzeko hitz andanaren amaieran sinadura dator, baina ez datoz bat orri batekoa eta bestekoa, edo probatan ari zen, sinadurarekin entseiuak egiten balebil bezala. Izan liteke sindikoaren laguntzaile ikaslea hitz zerrendaren egilea? Ezer ezin esan dezakegu oraingoz. Hitz zerrendarekin batera kontutxo batzuk ere ageri dira. Izan zitekeen esku berekoak izatea kontuak nahiz hitz zerrenda, edo, aitzitik, hitz zerrenda bigarren esku batek *a posteriori* egin izana. Horixe pentsatzera garamatza A letra eskuineko zutabearen erdian amaitu izanak, idazten jarraitzeko hartu beharko zukeen lekua kontutxo bik zikin-tzen eta hartzen dutelako. Hau, dena dela, ustekizuna baino ez da, eta berdin izan zitekeen alderantziz ere, kontuak hitz zerrendak utzitako zuriuneetan egin izana.

Urtero aldatzen zen sindiko kargua, orduko gizarteko potentatuen artean hautatzen zelarik. Izan ere, letraduna izateaz gain, maiorazkoa jarri behar izaten baitzuten bermetzat sindikogaiek. Ventura Ortiz de Zarate, Pedro A. de la Murga eta Álvaro de Ribaguda izan ziren urte haietan kargua behin baino gehiagotan izan zutenak, eta Tomás de Cueto, Juan de Mendijur, Ventura de Garay, Martín de Guibelondo, Francisco Ulizar edo Antonio Salcedo, besteak beste, orduko eskribauak, hirian luanaka aritzen zirenak eta behin baino gehiagotan sindiko kargua bereganatzen zutenak. Ahaleginak ahalegin, ez dugu izan ez batzuen ez besteen letramolde eta sinadurak hitz zerrendaren egilearenarekin identifikatzerik izan. José Ignacio Salazarrek, ikerketa grafologikoaren beharra azpimarratzen du, baina bien bitartean egilea Ventura de Garay eskribaua izan zitekeelakoa dauka, udal eskribauen betebeharratariko bat kontu liburuak gordetzea baitzen, eta hortaz ofizio horretakoa izan behar ezinbestean kontu liburua eskuetan erabil zezazakeen oro.

### Testuaren hizkera

Kokagune geografiko eta linguistiko berezian kokaturik daukagu Urduña, Burgoerako bide nagusian dagoela, behinola independentea izan zen Aiararekin, Arabako Amurrio eta Urkabustaiz udalerriekin eta Burgos probintziarekin egiten du muga, nahiz eta politikoki Bizkaia den.

Hiria edo ziutatea, Bizkai osoan titulu honetako bakarra, gune ekonomiko garrantzitsua izan zen, eta horren ondorioz gaztelaniaren sarbide goiztiar eta berealdikoa. Hala ere, udalerrria osatzen zuten beste kontzejuak, Arruzabaleko Juntan bilduak, nekazal guneak ziren eta hobeto eta luzaroago eutsiko zioten euskarari, lehe-

nago Gasteizen eta geroago Bilbaon gertatuko zen bezalaxe. Testuinguru horretan ulertu behar dugu L. M. de Isasti batxilerrak xvii. mendearen hasierarako Orduña hiri erdalduntzat ematea eta Poza lizentziatuaren euskalduntasuna, urduñarra bazen, Bilbaon edota Lekeition bilatu nahi izatea batetik eta J. Caro Barojak kronista gipuzkoarrari egiten dion erreplika<sup>3</sup> bestetik.

Prestameroren fondoan zetzan eta J. M. Barandiaranek ezagutarazi zuen 1787. urte inguruko *Pueblos de Álava por Vicarías* dokumentuak hizkuntzari buruz egiten duen ohar interesgarrian *Orduña* aipatzen du euskaraz mintzatzen ziren herrien artean, Aiarakoekin batera, besteak beste. Hogei urte geroago, frantses lehen inperioaren ekimenez 1807an egindako mapa batek<sup>4</sup> ere alde euskaldunaren mutur batean sartzen zuen *Orduña*. Testuinguru honetan kokatu behar dugu Jesús María Sánchez Terradillosek bildu berri interesgarria, Bizkaiko Kontseilu Probintziarrak Gasteizen nabarmendua zen Thouvenot jeneral frantses eta urte haietan Baionako gobernaria zenari egin eskaera: “debido a que en Orduña había artesanos y jornaleros que se expresaban mal en castellano o lo ignoraban absolutamente pudiera haber un eclesiástico euskaldun para confesar a estas gentes”.<sup>5</sup> Guzti hau zuhurtzia handiz hartu behar dugu, ikerlari berak aurrekoarekin batera jasoriko beste berri batek egoera eskasagoa baitakarkigu euskaldunagoa behar zuen Okondorako, non bertako apaizetariko batek, euskara ez ezagutzeagatik kargutik kenduta, euskara ez zela behar eta lau apaizetariko hiru erdaldunak zirela argudiatu baitzuen.<sup>6</sup>

Hurrengo hamarkadetan, alabaina, galera prozesua guztiz burutua zen, O. Apraizek xix. mendearen erdialderako atera erradiografiak argi adierazten zuenez. Bona parte printzeak ere ondo kanpoan utzia zuen gero, *Orduña* alde euskaldunean uzten zuen P. Brocaren maparen datuak guztiz gezurtatuz.

Hiriaren euskalduntasunaren gorabehera hauek alde batera utzita, ezer gutxi dakigu Orduñako euskaraz, ezta Aiarakoan edo Arabakoaren barruan sartu beharko genukeen ere, bietatik bai baitu, dudarik gabe. Hona dakargun hitz zerrendaren azterketak Landuchiorenera hurbiltzen gaitu, inora hurbiltzekotan, nabariak izanik auzoko hizketekiko antzak, Oñati edo Aramaiokotik Arratia edo Arrigorriagako bariatatearen barneko Laudiokoraino. Orduña, Landuchioren Gasteiz bezalatsu gaztelaniaren presentzia nabariko hiri elebiduna izanik ere, garbiagoa ageri da Orduñako hitz zerrenda, erdaretiko mailegu gutxiagorekin, alegia. Landuchioren *aguilea*, *bodega*, *albeytaria*, *vexigüea* edota *brevea* lemen orde, *marranoa*, *upategüia*, *eraslea*, *pujigüia*, eta *ustapicüba* dauzkagu Orduñan.

Bere txikian Orduñako hitz zerrendak hainbat hitzen lehen testigantza nabarmen atzeratzen du, begirada arin batean eta okertzeko arriskua geure gain hartuta, hola-koak dirateke *verbalduna*, *calcaiduba*, *yrarra*, *eraslea*, *beracaza*, *catac*, *uçurra*, *oramaya*, *garia* ‘berruga’, *upategüia* edota *ustapicüba*. Beste zenbait kasutan lehenago jaso ga-

<sup>3</sup> “A comienzos del siglo xviii parece que en el territorio vizcaíno de Orduña, enclavado entre Álava y Castilla, se hablaba vasco con intensidad”, *Materiales*, 16.

<sup>4</sup> B. Oyharçabalek hiru artikulua interesgarritan ezagutzera emana, ik. Bibliografía.

<sup>5</sup> Gernikako Juntetxeko Artxiboa, Independentziako Gerra, 53 erregistroa, 1 paper-sorta. *El Señorío de Vizcaya durante el primer periodo constitucional 1808-1814*, Doktorego Tesia, UPV/EHU, 1996, 109-110 or. Hektor Ortegari esker (k.p.) ezagutua, hurrengo oharrekoa bezalaxe.

<sup>6</sup> *Ibid.*, 58 erregistroa.

beko aldakiak ematen ditu: *costorraz*a, *pujiguia*, *erleea*, *tastavina* edota *marranoa* lemak, kasurako. Nabarmenagoa da, haatik, zenbait hitzi ematen dion esanahi berezia: *asaba* ‘abuelo’, *sabela* ‘barriga’, baina bereziki *beliguia* ‘azul’ edo *uria* ‘barrio’.

Fonetikari dagokionez, nabarmentzekoa da ziztukarien kasua. Ez dago seseoaren arrastorik eta hiru sailak ondo ezberdintzen bide ditu frikarietan eta bi baino ez afrikatuetan. Azken hauetan, apikala eta dortsala nahasiz, beti <z> grafia darabil bokalar-tean: *jazi*, *costorraz*a, *beracaza*, *mingaza*, baita hitz amaieran ere: *onuz*, baina bestela kontsonante ondoan: *calcaiduba* eta *barçuna*. Ohartarazi behar da ze hautsiaren erabilera ez dela sistematikoa gure zerrendagilea, grafia hau galtze prozesuan egonik, askotan ez baitu idazten, batzuetan <c> hutsa utzirik, bestetzueta <z> erabilirik. Frikarietan bereizketak garbia dirudi: *asaba*, *astoa*, *ysusquia*, *sabela*, *besoa*... batetik, eta *içurra*, *çuria*, *auçoa*, *catac*, *acula* eta *cumacoa* bestetik. Bigarrenekoetan <ç> eta <c> grafiak darabiltza bokalar-tean eta hitz hasieran goiko adibideetan ikus daitekeen bezala, eta <z> bokalar-tean zein herskariaren aurrean: *azac*, *bizarra*, *laztan*, *eztu*, *ezteyac*. Sail bien nahasketaren kasuak ez dira falta neutralizazioa faboratzen duen kontsonante aurreko egongunean: *ustapicuba* eta *eraslea*, *uztapiku* eta *erazle* etimologikoen aurrean.

Morfonologiari dagokionez, hitzaren azken bokalaren eta artikularen batuketak honako arauen arabera egiten dira. Batetik *-a + -a > -ea* daukagu, bizkaiera historikoa-ren arabera: *berea* ‘blando’, *erleea*, baina *pujiguia*, hiatoaren lehen bokala gradu batez itxiz. Emaitza honek bat egiten du *-e + -a > -ea* arauaren emaitzekin, hemen ez baita hersketarik gertatzen: *bean*, *barea*. Atzeko bokalen kasuan *-o + -a > -oa* daukagu batetik: *besoa*, *ardaoa*, *orioa*... baina irtenbide ezberdina bokal itxien kasuan, *-i* sabaikariak inolako elementu antihiatikoren arrastorik utzi ez duen bitartean, Arratiako eta Arri-gorriagako barietateak bereizten dituen ezaugarria baita; *-u* atzekoaren kasuan kontsonante ezpainkariaren presentzia nabaria da: *calcaiduba* eta *ustapicuba*.

## Testua

A

Abas<sup>1</sup> = ~~babac~~ babac<sup>2</sup>

Abeja – ~~erleea~~ erleea<sup>3</sup>

Acceite – orioa<sup>4</sup>

hablar – verbaeguin

ablador – verbalduna<sup>5</sup>

abierto – iregiric<sup>6</sup>

<sup>1</sup> *Habas*, jakina. <H>a falta da, halaber, *ablar*, *ablador*, *errador* eta *arto* hitzetan. Landuchio zuzenagoa da honetan, nahiz eta ortografia are gutxiago finkatuta zegoen mende bat atzerago idazten duen; pentsarazten digu honek Urduñako egilea ez zela oso trebatua letretan, edo zabarragoa zela, bestela esanda.

<sup>2</sup> Orokorra. *RS* bildumak ez dakar, baina bai Lazarragak (*Baba çigorrez saldea*), Landuchiok eta Micoletak: *babea*.

<sup>3</sup> Bitxia eta harrigarria da agertzen duen bokal bikoitza edo bitua; izan ere, gainerako dialektoetan arrastorik ez du eta Arabako euskaran bereziki bokal bikoitzen falta espreski nabarmendua baitzen. Badirudi *erlea* (edo *erlee*) formatik *erleea* forma artikuluduna eratu dela, *katea* forma soiletik *kateea*, *kateia* sortzen den bezala. Cf.: *cateea*, Lazarraga. Arrotza dena, beti ere, azken bokal itsasi horrena da, Landuchiok *erlea* eta Micoletak *erleá* ematen dute garbi, azken honek honekin zerikusirik ez duen *loo* ‘lo’ ematen badu ere. *Kateia*, *areia* edo *gaztaia* hitzek azaltzen duten bokalismoa, jakina, etimologikoa da, hitz honen kasuan ez bide dena. Argi dagoena da ez dela idazteko momentuko akats bat, hitza eskuinerago idazteko tatxatu eta berriro bere horretan idazten baitu bigarrenagoz. Beherago *bean* ‘abajo’, bokal bikoitz etimologikoaren aztarnarik gabe, berdin *chala* ere.

<sup>4</sup> Tatxaturik ageri da, aurrerago zerrendatzeko, momentu batez ordena alfabetikoa zaindu nahiko balu bezala, baina ordena hori berriro hausten du dozena erdi hitz aurrerago *azeite* eta *açero* idatzi eta gero.

<sup>5</sup> *Berba egin* orokorra da bizkaieran, horrelaxe dakarte Lazarragak, Landuchiok eta Micoletak, besteak beste. *Berbaldun* lexemak, ordea, lehiakide asko dauzka eta, hortara eta Azkuek aitortzen dion orokortasuna gorabehera, ez dirudi erabateko zabalera izan duenik inoiz. Mogelek badarabil, Markinaldean erabilia izatearekin bat datorrena. Micoletak, aitzitik, *berbatia* ematen du, L. Berrizbeitiak Abadiñon jasoa, eta Landuchiok *verbaria* ez oso urrunekoa. Hauek honela, *berbaldun* hitzaren testigantza zaharrena Añibarrorena genuen, baina arratiarrak darabilen *berba-aldun* grafiak pentsaraz liezagukeenaren kontra ez da, Urduñako honek frogatzen digun moduan, modernoa, ezta Larramendiri hartua ere, azken honek *verbatsua* baino ez baitakar, T. Etxebarriak Eibarrerako ematen duena bera.

<sup>6</sup> Partizipiozko forma arrunta, *ezturic* ere aurrerago, *-ta* partizipioaren aurretik gaur egun oraindik nahietsia Mendebaldeko zenbait hizkeratan. I. Gilisagastik *irigitte* jaso du Urdulizerako.



abrir – iregui<sup>7</sup>  
 abraçar – lastanaeguin<sup>8</sup>  
 abraço – lastana<sup>9</sup>  
 azeite – orioa<sup>10</sup>  
 açero – calcaiduba<sup>11</sup>  
 apretar – eztu eguin<sup>12</sup>  
 apretado – ezturic<sup>13</sup>  
 aguja – costorraza<sup>14</sup>

<sup>7</sup> Bokalismoari dagokionez, Urduñako autorea nahikoa kontserbadore ageri da testuan, asimilatu gabe ematen du *iregui* eta *ireguiric*, nahiz *beliguia* eman gero. Landuchiok, ehun urte lehenago eta testu zainduagoan, *yregui*, Lazarragak bezalaxe, baina *hisi irigui* ematen ditu, baina *yrigui* bakarrik Micoletak. Egia bada, alabaina, ahoz *irigi* eta *igiri* formen ondoan, ondo gorde direla *iregi*, *eregi* edota *igeri* metatetikoak —*erain*, *erein* Lea-Artibaiko herrietan—, *zabaldu* forma hedatuagoarekin lehian.

<sup>8</sup> Etxebarriak Eibarrerako *lastan eñ* jasotzen du *lastandu* eta *lastan emon* lexien ondoan, baina kasu guztietan ‘musua eman’ zentzuarekin. Zentzu berberarekin, Landuchiok eta Micoletak *egin* konposatuak dituzte, baina oinarri ezberdinak: *muyn eguin* lehenengoak eta *mochu eguin* bigarrenak, eta *besaca eguin* Landuchiok ‘besaratu’ zentzuarekin. Lazarragak, bestaldetik, *neure lastanaz eguinic* idazten du.

<sup>9</sup> Añibarrok eta Larramendik ematen dioten ‘abrazo’ zentzua du, baina beste nonbait eta noizbait ere ezaguna, Manterolak kantutegian espreski seinalatzen duenari kasu egiten badiogu: “*Úsase también con la significación de abrazo*”. Gaur egun behintzat, Bizkaiari ‘maitea’ edo esanahiko izenlaguna da maizago, eta bakanago sustantiboa, ez zentzu batekin ez bestearekin. T. Etxebarriak Eibarren *lastana* biltzen du, ‘amado’ zentzuarekin baina Larrañagak, Antzuolan, ‘muxua, pa’ zentzuan bildu du.

<sup>10</sup> Orokorra autore zaharregan (Lazarraga, Landuchio, Micoleta...), baita Bizkaiko euskara mintzatuan, *olio* formagaz lehian.

<sup>11</sup> Hola jasotzen du Azkuek, bizkaiera seinalatuz, datu zehatzagorik eman gabe, Orozkorako *galtzaidu* eta Otxandiorako *galtzairu* aldakien lagun. Gure autore zaharrek ez dute erabili, Urduñako hau forma honen testigantza zaharrena suertatuz. Amaierari dagokionez, bokalismoan ahozko mintzairak corpus txiki honetan erakusten duen ezaugarri gutxietariko bat ikus dezakegu, *ustapicuba* lexeman bezala, konsonante antihiatikoa garatu duena.

<sup>12</sup> *Estutu* itxaron behar genuke, Micoletak dakarren bezala, ez baitira ohikoak adizlagunekiko *egin* konposatuak. Landuchiok *apretadu* dauka, baita, alabaina, *eztu eguin* ‘estreichar’ ere, ziztukariaren grafia berezian ere bat datozela. Lazarragak, bestaldetik, *estu oy bearrco dau goldea* idatzi zuen.

<sup>13</sup> Forma partizipiala *estuturik* genuke, edo *estu eginik*, aurreko infinitiboari jarraiki; moduzko aditzondo tankera gehiago du beraz, Lazarragak darabilenaren modukoa: *eri onetan bestec eztu lar oy deban librea*. Landuchiok *esturo* ‘estreichamente’.

<sup>14</sup> *Jostorratza* forma orokorraren aldaki testatu gabea, Otxandiorako Azkuek bilduriko *dostorratza* bezain bakana. *Klj* alternantzia *bekala* ‘bezala’ edo *ikain* ‘izain’ bezalako hitzetan aurkitu badezakegu ere, sarriago aurkitzen dugu maileguak egokitzeko prozesuaren ondorioz: *jicara* > *kikara*, *tejavana* > *tekamana*, e.a. Kasu honetan,

aquí **en** – emen<sup>15</sup>  
 alli – an  
 + aca – ona  
 + aculla – andico aldean<sup>16</sup>  
 + hacia aca – onuz<sup>17</sup>  
 arbeja – yrarra<sup>18</sup>  
 asno – astoa<sup>19</sup>  
 albéitar o errador – eraslea<sup>20</sup>  
 abajar – jazi<sup>21</sup>  
 ajo – beracaza<sup>22</sup>  
 abarcas – catac<sup>23</sup>  
 abajo – bean<sup>24</sup>

erdarazko *costura* familiakoek kutsa zezaketen euskarazko forma, etimologia komunen afera alde batera utzita, ezin ukatuzkoa baita bi familia lexikoen arteko lotura, L. Berrizbeitiak Abadiñon bildu *jostorratza* eta *joskura* lekuko. Landuchiok, hala ere, *costurea* baina *josi* eman zituen, *orrasza* soilaren ondoan; Micoletak *jostorratza*.

<sup>15</sup> *Euen* forma etimologikoaren ondoan —horrela Landuchiok eta Garibay, esaterako—, forma orokorra bizkaierazko testu zaharretan, Micoletarenean eta Audiokoetan, kasurako.

<sup>16</sup> Oso erabilia ahozko bizkaieraz zein toponimian, baina testu zaharretan urri bezain bakan. Landuchiok *andico lequan* dakar, ‘aculla donde está alguno’.

<sup>17</sup> Bizkai ekialde eta hegoaldeko hizkeren araberakoa. Landuchiok *onusç* ‘aquí hazia do estoy’, *etorri onuç*, *onusç eguin* ‘allegar’, eta HAZIA sarreran: *usç* eta *aronz*, azken hau B eskuaren eskutikoa.

<sup>18</sup> Añibarrok jasotzen duen forma dugu, nahiz eta Bizkaian zabalduagoa dagoen *idar* forma. Azkuek Bizkai erdialderako ematen du dardarkari bikoitzeko aldakia, Plentzia eta Gernika aipatuz. Ez Landuchiok ez Micoletak ez dakarte hitza, baina bai, biek ere, *berarra* eta *yrarguia*, bina dardarkarekin.

<sup>19</sup> Landuchiok ‘asno silvestre’ eta Micoletak ‘borrico’ adierak ematen dituzte, lehenak bigarren adierarako *astocoa* ematen duelarik.

<sup>20</sup> Gipuzkoako bizkaieran gordea. Añibarrok ere badakar, Larramendik bezalaxe, gure testuak ematen dion adiera bikoitza azaltzen duelarik gainera: “*Albeitar, comúnmente lo es el herrador y por eso el bascuence le da el mismo nombre*”. Ez dugu Micoletarengan ikusi eta Landuchiok dakartzanak erdaratikoak dira: *albeytaria eta herradorea*.

<sup>21</sup> Orokorra behinola, baina bizkaieraz aspalditik *bajatu* (Mic. *baxadu*, ‘abatirse, abaxar’) maileguak neurri handi batean ordezkaturia. Landuchiok, hala ere, *jasçi*, Lazarragaren *jaçita* formaren haritik, Audioko testuetan bezala.

<sup>22</sup> Arrunta Bizkaiko euskaran, baina Lazarragak nahiz Landuchiok *baracaça*, Urduñako honetatik bereiziz.

<sup>23</sup> Testigantza urriko hitza baina ez ezezaguna: *zata*. Holaxe jasotzen du Añibarrok berak: Landuchiok, ordea, *abarquea* orokorra.

<sup>24</sup> Bi bokalak berdinduta, Lazarragaren *bean* edota Micoletaren *beaturic* formetan bezala. *Ik.* 6. oharra.

arruga – үр үçурра<sup>25</sup>  
 abuelo – asaba<sup>26</sup>  
 artesa – oramaya<sup>27</sup>  
 amargo – mingaza<sup>28</sup>  
 amarillo – oria<sup>29</sup>  
 azul – beliguia<sup>30</sup> o acula<sup>31</sup>

<sup>25</sup> *Izur* eta *zimir*, edo *ixur* eta *tximir* forma jatorriz txikigarriak, ditugu lehen-dabiziko testuetatik lehia. Hala eta guztiz ere, badirudi zentzu bereizketa ere zaharra dela, Larramendik ‘arruga en el vestido’ eta ‘arruga en el cuero’ ematen ditu lehenengo eta bigarrenetako, hurrenez hurren. Landuchiok, haatik, *chimurra* baino ez du ematen, eta, ildo beretik, Micoletak *chimurto* eta *chimurtasun*; T. Etxebarriak Eibarrren eta A. Martínez de la Cuadrak Nabarnizen jasoriko *izur*, *ixur* lexiak, alabaina, ‘frunce’ adiera garbi eta bakarra dauka.

<sup>26</sup> ‘Abuelo’ zentzua ematen dio testuak. Landuchiok aurrekoaren konposatua den *assabeaytea* dakar, hortik *OEHa*k dioskuna: “como abuelo sólo se encuentra en Iztueta y Lardizabal”. Micoletak *ayta-obeá* dakar, eta hortik Laudioko euskararen 1872an idatzitako Ruthen Liburuan eta Arrigorriagako bariatatean oraindik entzun daitekeen *aitua*. Laudion *Erizkizundi Hirukoitzak aitaite* jaso zuen, forma hori ia guztiz orokortu da, erdararen bidetik paradoxikoki, baita Arrigorriagako bariatate osoan ere.

<sup>27</sup> Orokorra, hitza gaur egun, ogibide tradizionalarekin batera, galbidean badago ere. Ez dugu testu zaharretan aurkitu, baina Azkuek Arrigorriagako bariataterako ematen du.

<sup>28</sup> Landuchiok sufixurik gabeko *mina* forma jaso zuen. Bizkaian zabalduago daude *mingotz* tankerako *-o-* aldakiak, eta Gipuzkoan, berriz, *mingatz* tankerakoak. Gipuzkoako bizkaieran, muga lurra izanik, bietakoak nahasian. Honetan ere, beraz, ekialderuntz lerratzen da gure testua.

<sup>29</sup> Orokorra, Bizkaian *beilegi* aldakiarekin lehiatzen bada ere. Horrela Landuchiok *oria* eta Micoletak *belleguia* ‘cosa amarilla’. Azken honi, hurrenik ikusiko dugun bezala, Urduñakoak esanahi berezitu bitxia ematen dio.

<sup>30</sup> Micoletak eta Añibarrok jasotako *beilegia* eta Laudioko *belligia*, baina ‘urdin, azul’ zentzu bitxiarekin. Bizkai mendebaldean da bereziki erabilia *beilegi*, baina, guk dakigula, inon ere ez testu honetako zentzuan. Pentsa liteke zerrenda egilearen hutsa dela, juntagai disjuntibo aurreko hitzari egoki, baina ez daukagu irakurketa erraz horren aldeko bestelako argudiorik. Fonetikaren aldetik, Laudion *Erizkizundi Hirukoitzak* jaso formak erakusten duen asimilazio bera ageri du, baina sabaikaitu gabe edo palatalizazioa galduta.

<sup>31</sup> Orokorra dugu hegoaldean, *urdin* lexemak bereziki fruta, gazta eta abarrekoen ‘lizuna’, ‘ile zuritua’ edo ‘azal zuri edo larukoa’ adierazten dituelarik. Landuchiok *gauça azul* ematen du, ezer ez Micoletak. Ez da testuetan kasik agertzen, erdarazkotzat hartua eta alde horretatik gaitzetsia izan delako. Bitxia dena, hala ere, testuak ematen dion *beligi* sinonimoa da.

## B

Baca – Beya

Beçerro recien nacido – chala<sup>32</sup>

Becerro de un año – çecorra<sup>33</sup>

Badil – cumacoa<sup>34</sup> = y barçuna<sup>35</sup>

Berças – azac<sup>36</sup>

Borracho – ordia<sup>37</sup>

Bever – edan

Bino – ardaoa<sup>38</sup>

Baço – Barea

Barba – Bizarra

Barato – merque<sup>39</sup>

Barreno – tastavina<sup>40</sup>

Barrer – ysusquiagaz garvitu<sup>41</sup>

<sup>32</sup> Oso zabaldua hegoaldean, bai egileak ematen dion zentzuan bai ‘emea’ edo ‘urrixa’ adierazteko ere. Honen inguruko zehaztasunik ez digute ematen geure autore zaharrek, *beya* baino ez Micoletak.

<sup>33</sup> *Çeçen* baizik ez du jasotzen Landuchiok, bai eta ‘becerro’ zentzuan ere.

<sup>34</sup> Testuak, *bartzun* orokorraren aurretik zerrendatzen duen *cumacoa*, Azkuek Oñatin jaso zuen *sumako* bera da urrean. Itxura batean *su* hitzaren konposatu baten aurrean gaudezke. Larramendik, bestaldetik, *surmacoa* eta *sumaquilla* ematen dizkigu.

<sup>35</sup> Orokorra eguneko bizkaieran, bai eta autore zaharretan ere: *barçuyna* Landuchiok eta *barsuna* Micoletak.

<sup>36</sup> Orokorra, plural marka itsatsita duela. Lazarragak eta *RSek* ez dakarte; *açea* Landucciok eta *assea* Micoletak.

<sup>37</sup> Orokorra, hala Landuchiok nola Micoletak jasoa, *mozkor* modernoak, mendealdean bereziki, lekua kendu badio ere. *Ordixa* ematen du Etxebarriak Eibarrerako ‘borracho habitual’ zentzua emanda eta zentzu oso peioratiboa duela zehaztuta.

<sup>38</sup> Azken bokala itxi gabe, autore zaharrek bezalaxe: Landuchio, *RS* edota Micoleta. Artikulu gabe Laudioko katekimetan eta Garibayren errefracuetan, sudurkariaren arrastoarekin azken honetan.

<sup>39</sup> Orokorra. Artikulurik ezak, adizlaguna ez baina aditzondoa dela pentsarazten digu. Micoletak *merquea* ematen digu eta Garibayk *merque dala* ‘siendo barato’, artikulurik gabeko adizlagun funtzioan, beraz.

<sup>40</sup> Hitz ezagun bezain galdua. Landuchiok *tastavia* ‘barrena’ jaso zuen, eta Azkuek Mondragoen *tastafin* ‘barreño [sic] pequeño’; Micoletak Bilbaorako, ordea, *gui-maleta* ‘barreno’. Bai Urduñako bai Arrasateko formek erakusten duten *-in* amaierari dagokionez, *txakolil-in*; *txikil-in* eta halakoen ildotikoa genuke, hiatoa saihestearren sortua.

<sup>41</sup> Lehenengo elementua *giñar* eta *eskoba* maileguarekin lehian dagoen arren, erabilia da Urduñatik gertueneko herrietan, hala nola Arratian, Orozkon edota bizkaiera Gipuzkoakoetan. Landuchiok *ysusquia* bai baina aditz konposatua ez du jaso-

Barrio – uria<sup>42</sup>

Basta o arto esta – ascoda<sup>43</sup>

Becindad – auçoa<sup>44</sup>

Berruga – garia<sup>45</sup>

Barriga – sabela<sup>46</sup>

Bejiga – pujiguia<sup>47</sup>

tzen, era honetako konposatuak oso bereak diren arren, jasotzen duena *içussi* bitxia da. Micoletak *ynarrea* eta *garbitu* soila, ‘barrer’ eta ‘limpiar’ zentzu bikoitza emanda. Konposatua, oraingoan, Larramendiri utzi zaio: *erratzaz, escobaz garbitu*. Itxuskiaren esanahi zehatzerako, cf. Nabarnizen A. Martínez de la Cuadrak bildua.

<sup>42</sup> Bitxia eta testatu gabea da *uria* ‘auzo’ adiera. Mendebaldeko *uri*, gainerako (*h*)*iri* aldaki orokorraren ondoan, herria baino kategoria handiagoko gune urbanizatua adierazteko erabili izan da edo horrela jaso hiztegiatan, behintzat. Haatik, toponimiaren lekukotasunak agerian uzten du ‘baserri’ edo ‘auzo’ zentzuak ere izan dituela, *Uriarte, Uribarri, Urizar, Uriondo*, e.a. Halaber, berauen aldaki *i*-dun ekialdekoak, ez baitira inoiz hiriak, auzo edo baserri hutsak baizik. Antzekoa pentsa daiteke, gainera, *Basauri, Obekuri, Enekuri*, e.a. tankerako *-uri* toponimoekin. *Ik.* behe-raxeago: beçindad, *auço*.

<sup>43</sup> Esapidea dugu, Landuchiok eta hainbatek erabilia: *asco da errazoaric* (Larrazaga).

<sup>44</sup> Interesgarria da hitz honen eta *uria* artean egiten duen bereizketa, ‘vecindad’ lehenengorako eta ‘barrio’ bigarrenenerako emanda. Landuchiok (B) *auçua* ‘conçejo’ ematen du, <V> letrarako, jakina denez, sarrerarik ia ez duelarik ematen, *vezino* hitza zerrendatu bai, baina euskarako baliokiderik ez zitzaion heldu. Lazarragak ez dakar ezer eta *RSek* ‘vecino’ adiera ematen dio, Micoletak legetxe. Egungo euskara bizian, bestalde, *auzo* lexemak, inguru bateko bizilagunen zein etxe multzoa adierazten du, lehenengorako *auzoko* eta bigarrenenerako *auzune* edo *auzotegi* konposatu berezietuekin lehiatzen bada ere. Azkuek *auzunaa* ematen du Arabarako, gehiago zehaztu gabe. Etxebarriak Eibarrerako *auzua* ‘vecindario’ eta Alberto Martínez de la Cuadrak Nabarnizen *euso* ‘1. vecino; 2. barrio, vecindad’ jaso digu.

<sup>45</sup> Gipuzkoako bizkaieraz gain, Bizkai mendebaldean ere erabilitako forma. Arabako mugako alderdietarako jasotzen du Azkuek, hots; Orozko eta Arratian, Añibarrenroren testigantza indartzen duena. Landuchiok, aitzitik, *vixigüea* baino ez.

<sup>46</sup> Orokorra da, baina ez ‘barriga’ adiera honekin, seguruenik testu erlijiosoetan identifikazio zehatz eta bakarra ematen izan zaiolako. I. Gilisagastik Urdulizen *tripe* eta *silbota* jasotzen ditu bi adieretarako, inolaz ere ez *sabel*. Gamindek Bakiorako, *tripie*, *urdille* eta *estomague* baina *sabel* ez. *Sabelaldi* batzen du Azkuek ‘parto, camada’ zentzua emanez, Arabarako. *Sabela* ‘vientre’ Eibarren T. Etxebarriak. Landuchiok, ez ‘tripa’, ez ‘vientre’, ez ‘barriga’, besteak beste, hitz hau hiztegian azken orrietan agertzekoa zelako.

<sup>47</sup> Mendebaldeko forma, Micoletak, Añibarrok, Etxebarriak Eibarrerako edota J. Arretzek Basaurirako jaso *puxiga*, *puxigea*, *puxigia* formatatik oso hurbil. Belarearen presentzia arrotza, erdarazko baliokidearenari egotzi behar zaio, Landuchiok erdarazkoa bera (*vexigüea*) darabil euskararako ere, bi formen arteko antza eta elkareragina, etimologikoa ere badatekeena, agerian uzten duena.

Bisabuelo – aurbea<sup>48</sup>  
 Biudo – alarguna<sup>49</sup>  
 Blanco – çuria  
 Blando – berea<sup>50</sup>  
 Boca – aoa<sup>51</sup>  
 Bodas – ezteyac<sup>52</sup>  
 Bodega – upateguia<sup>53</sup>  
 Baço  
 Braco – Besoa  
 Brasa – chingarra<sup>54</sup>  
 Brevas – ustapicuba<sup>55</sup>  
 Buey – ydia  
 Buitre – marranoa<sup>56</sup>

<sup>48</sup> Landucciok ematen dion zentzu bera: ‘bisabuelo, abuelo 2-º’, alegia. Gaur egun, Bizkaiko mendebaldean aurrekoaren emaitza dirudien *aube* ‘aitaginarreba’ dugu. Orain arte lexikografo italiarraren hapaxa zen hitz honen beste alerik ez dakarte testu zaharrek.

<sup>49</sup> Hitz orokorra dugu euskaraz. Testuak genero maskulinoaren esanahia baino ez dio ematen, *asaba* eta *aurbea* hitzetan bezala, Landuchiok egiten duenaren kontrakoa, baina gizonetzko zein emakumezko alarguna berdin adierazten dituela pentsatu behar dugu, Micoletak dakarren bezala.

<sup>50</sup> *Bera* hitz orokorra, artikulua hartuta. Landuchiok ere *verea* eta *beratu gogorra* ematen du; Micoletak, ordea, *biguna* eta *bigundu*. Adizlagun gisa galdu samar dago, *beratu* ‘uretan bigundu’ aditzean gorde delarik gehien.

<sup>51</sup> Orokorra, baina *agua* Landuchiok, ahozko forma orokorraren bidetik. Lazarragak, *RS* bildumak, Garibayk edota Micoletak ere, alabaina, (*h*)*aoa* forma jasoa.

<sup>52</sup> Bizkaian orokorra den forma *eztegu(ak)* daukagu, horrela Micoletak. Urduñako honen parekoak Lazarragaren eta Landuchioren *eztey* eta *ezteyac*, hurrenez hurren; baita Azkuek bildu zuen *eztai* oñatiarra ere.

<sup>53</sup> *Upa*, Azkuek Arrasaterako biltzen duenaren arabera, *upela* baino txikiagoa da. Urduñako hiztegi gilearen forma konposatua L. Berrizbeitiak jaso du Abadiñon: *upie* eta *upetei(dx)e*. Landuchiok, berriro ere, erderazkoetatikoak darabiltza: *varril bat, bodegu[ea]*.

<sup>54</sup> Orokor xamarra; Arrankudiagan *Txingarleku* toponimoa daukagu.

<sup>55</sup> *Uztapiko* ematen du Azkuek orokortzat gipuzkerarako —Larramendiren *uztapicoa* ‘breva’-rekin bat datorrena— eta Bizkaiko Markinarako ere. Gure hau, aitzitik, hitzaren testigantza zaharrena dugu. Bizkaian, bestaldetik, zabalduago dago *iko* oinarria eta ez *piko*. Horrela *hicoa* Micoletak; Landuchiok, oster, *ficua* baina *brevia*.

<sup>56</sup> *Arrano* hitzaren forma adierazkor edo konposatu baten forma desitxuratu baten aurrean gaudezke. Izan ere, esanahiaren aldetik, orokorra da ‘aguila’ eta ‘vultur’ zentzuen nahasmena edo indeterminazioa, horrela, esaterako, Eibarren. Landuchiok *aguilea* ‘aguila’, baina zuriz baliokiderik eman gabe uzten du BUYTRE sarrera. Konposatua *atxarranoa* izan liteke, *txarranoa* eman duena, ez legoke Urduñakoa, bada, oso

Bueno – nad ona<sup>57</sup>

Buscar – vilatu<sup>58</sup>

## Bibliografia

- Agud, M. & L. Michelena (arg.), 1958, *N. Landuchio. Dictionarium linguae cantabrigae (1562)*. Seminario Julio de Urquijo, Donostia-San Sebastián.
- Apraiz, O., 1969, *El vascuence en Vitoria y en Álava en la última centuria (1850-1950)*. Diputación Foral de Álava. Vitoria-Gasteiz.
- Azkue, R. M., 1905-1906, *Diccionario vasco-español-francés*. 2. arg., LGEV, Bilbo 1969.
- Barandiaran, J. M., 1926, «El euskera en Álava a fines del siglo XVIII», *RIEV* 17, 464-467.
- Barrenengoa, F., 1990, *Onomástica de la Tierra de Ayala*. Diputación Foral de Álava, Vitoria-Gasteiz.
- Caro Baroja, J., 1945, *Materiales para una historia de la lengua vasca en su relación con la latina*. Universidad de Salamanca.
- Etxebarria, T., 1965-1966, *Lexicón del euskera dialectal de Eibar*. Euskaltzaindia.
- Gaminde, I., 1993, *Abadiñoako lexikoaz*.
- Gilisasti, I., 2003, *Urduliz aldeko berba lapikokoa. Léxico del euskera de Uribe Kosta*.
- Gorrochategui, J., 1987, «Andrés de Poza y el euskera», *ASJU* 21/3, 661-681.
- Knörr, E. & K. Zuazo (arg.), 1998, *Arabako Euskararen Lekukoak. Ikerketak eta Testuak*. Eusko Legebiltzerra, Vitoria-Gasteiz.
- Lakarra, J., 1996, «Betolatzaren hiztegia», *ASJU* 15, 235-272.
- , 1996, *Refranes y Sentencias (1596). Ikerketak eta Edizioa*. Euskaltzaindia, Bilbao.
- López de Guereñu, G., 1989, *Toponimia alavesa: seguido de mortuorios o despoblados y pueblos alaveses*. Euskaltzaindia, Bilbao.
- Martínez de la Cuadra, A., 2006, *Nabarniztarren berbakera. Lexikoa eta erabilera-adibideak*. Nabarnizko Udala.

urruti. Behin *txarrano*-ra iritsita, erdarazko *marrano* hitzaren kutsaduran pentsa genezake, *txarr-* = *txarri* ekuazioa, eta hegazti honek haragi ustela jateko ohitura tar-teko; baina oso irristagarria da dena, eta nekez frogatzekoa. Toponimian, hegazti honen zantzuak ugariak badira ere, *Putrearri*, *Arranoatxe* (bi ditugu Ganekogorta edo Belautetik oso gertu), e.a. –*Saizar*, bestaldetik, ez da, bestetan esana eta idatzita daukagun bezala, *Sagastizar* ezagunaren forma oso laburtu bat baino–, ez dugu *marrano* honen arrastorik aurkitu.

<sup>57</sup> *Ona* idatzi baino lehen zerbait idazten hasi eta amaitu gabe utzi eta tatxatu du urduñarrak. Erdibideko *nad-* horren atzean zer egon ote daitekeen ez dugu igartzen, ezpada *nada*, *nada bueno* ironikoa bururatu, idazten hasi eta azkenik damutu izana. *[O]na da*, ondoko *ascoda* bezala, izkiriatu nahi izan zuela ere pentsa genezake, baina aferesi bitxi xamarra postulatu beharko genuke, ondoren osorik idazten duenean ageri ez dena.

<sup>58</sup> *Bila* aditz-posposizioa orokorra bada ere, aditz gisa ez da bizkaieraz erabilia egun, ezpada *topau*; baina bai antzina eta Arabako euskararako espreski testatua. T. Etxebarriak Eibarrerako *billau* ‘topau’ ematen du, Lazarragak *bilaetan*, *bilatuco nax*; Landuchiok *bilatu*, *bilaytea*, *RS*-ek *billaetan*. Micoletak, ordea, *ydoro* baino ez.

- Martínez de Madina, E., «Landuchioren hiztegi iraulia: euskara-gaztelania», in Knörr & Zuazo (arg.), 335-465.
- Ormazabal, J. L., 2002, *Aramaioko euskara: azterketa dialektologikoa*. Arabako Foru Aldundia, Vitoria-Gasteiz.
- Oyharçabal, B., 1992, «Euskararen mugez egin lehen mapak (1806-1807)», in *Luis Villasante. Omenaldia. Iker-6*, Euskaltzaindia, Bilbao, 349-366.
- , 1995, «Euskararen mugak hego aldean 1807.ean: Eugène de Coquebert de Montbret-en artxiboetan gelditu dokumentuak», in *Euskal Dialektologiako Kongresua (Donostia 1991), ASJU-ren Gehigarriak XXVIII*, R. Gómez & J. Lakarra (arg.), 241-253.
- Otsoa de Alda, J. & E. Breñas, 2002, *Antecedentes del euskera en Álava*. Geu, Vitoria-Gasteiz.
- Ros, A. & E. Sáiz, 2001, «Barakaldo eta Enkartzazioen historia linguistikoz», *Litterae Vasconicae* 8, 47-117.
- Sánchez, J. M., 1996, *El Señorío de Vizcaya durante el primer periodo constitucional 1808-1814*, Doktorego Tesia, UPV/EHU.
- Urkijo, N., 1994, *Zenbait apunte Laudioko euskaraz*. UEU, Bilbao.
- Urkizu, P., 2004, *Joan Perez de Lazarrağa, Dianeça & Koplak*. Erein, Donostia-San Sebastián.
- Villasante, L., 1956, «Una lista de pueblos vascongados de Vizcaya, Guipúzcoa y Navarra de principios del siglo XIX», *BAP* 12/4: 433-446.
- Zelaieta, A., 1988, «Rafael Micoleta Çamudio: *Modo breve de aprender la lengua vizcayna*», *Eusko-Ikaskuntza, Hizkuntza eta Literatura* 7, 133-214.
- Zuazo, K., 1989, «Arabako euskara», *ASJU* 23/1, 3-48.
- , 1998, «Betolatzaren hizkeraz», in Knörr & Zuazo (arg.), 73-86.
- , 1999, «Arabako euskararen kokagunea», *FLV* 80, 165-184.
- Zubiaur, J. R., 1989, *Las ideas lingüísticas vascas en el siglo XVI (Zaldibia, Garibay, Poza)*. Universidad de Deusto, Donostia-San Sebastián.
- Zubiaur, J. R. & J. Arzamendi, 1976, «El léxico vasco de los refranes de Garibay», *ASJU* 10, 47-144.






Figura A




Figura B